

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

# 1818

*AGINDUA, 2017ko martxoaren 24koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren I. eta III. eranskinak aldatzekoa.*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren xedea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea arautzea da, oinarritzat harturik egungo zientzia-, teknologia eta berrikuntza-estrategia, 2020.era arteko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planean jaso, eta, zehazkiago, eragile bakoitzak I+G+b arloan duen espezializazioa, bikaintasuna eta kokapena zehazten duen berrantolamendu-prozesuan, bai eta espero diren emaitzetan ere.

Izan ere, prozesu horren bidez, lortu nahi da, hartutako esperientzian oinarrituta, eragile bakoitzaren posizionamendu zehatza eta helburuak zehaztea. Horrekin guztiarekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen eraginkortasuna eta orientazioa areagotu nahi dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko ehun produktibo eta sozialerako balio-ekarpena hobetu ere, betiere elkarlanaren eta osagarritasunaren bitartez.

Eta badu beste helburu bat ere; alegia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoa sortzea. Bi gauzatarako izango da: identifikatzeko zein diren sare hori osatzen duten erakundeak; eta sare-kide izate horren publizitatea egiteko.

Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren I. eranskinean Oinarritzko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroen Plan Estrategikoan agertu beharreko elementuak zehazten dira. Erakunde bat Oinarritzko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroen kategoriako zientzia- eta teknologia-eragile gisa bereizteko azterketa egokia egiteko, beharrezkotzat jo da aipatutako Plan Estrategikoak jaso behar dituen elementuetan aldaketa batzuk egitea.

Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuko III. eranskinean, Foku Anitzeko Teknologia Zentroi eta Teknologia Zentro Sektorialei, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroi, eta Enpresetako I+G Unitateei dagozkien eragileen tipologietarako zehaztutako Aginte Taulak argitaratzen dira, besteak beste. Aginte Taula horiek bi erabilera dituzte: batetik, eragile-kategoria bakoitzaren jarduna karakterizatzen du ziurtatze-prozesuari begira, eta, bestetik, eragileek 2020an lortu beharreko adierazleak, pisuak eta helmugak finkatzen dituzte, hala badagokio.

Aplikazio-aldian, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua argitaratu eta gero, Aginte Tauletako adierazle batzuk eguneratu egin behar direla ikusi da, eragileek lortzen dituzten emaitzak behar bezala neurtzeko; horrela, bada, III. eranskina eguneratu behar da.

Foku Anitzeko Teknologia Zentroen eta Teknologia Zentro Sektorialen, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen, eta Enpresetako I+G Unitateen Bikaintasun eta Harreman Ereduaren lerroetako emaitzak lortzeko orientazio egokia eskaintzea izango da aldaketa horien helburua.

Horregatik guztiagatik, adierazle batzuk eta horien 2020rako pisuak eta helmugak aldatu behar dira, baita aldaketa horiek eragindako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile-kategorien aginte-aula ere.

Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuko eranskinen aldaketak Dekretu horretako azken xedapenetako lehen xedapenean aurreikusten dira. Lehen xedapenean, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua garatzeko eta gauzatzeko eta, zehazki, eranskinetan jasotako edukia eguneratzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari (dagozkion eskumenen esparruan).

Horiek horrela, hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren I. eta III. eranskinak aldatzea, agindu honetako eranskinetan adierazten den moduan idatzita gera daitezzen.

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroei dagokien I. eranskinaren aldaketari dagokionez, Plan Estrategikoko atalak berregituratzea eta sinplifikatzea, planak barne hartzen dituen atalak multzokatzeko eta argitzeko:

1.– Zentroaren deskribapen orokorra eta helburuak.

1.1.– Lan-esparrua eta justifikazioa. Ikuskera, misioa eta balioak. Ikerketa-jardueraren balio erantsia.

1.2.– Helburu estrategikoak.

1.3.– Gobernantza.

1.4.– Laguntzaileen sarea eta itun estrategikoen ezarpena: Zientziaren Euskal Sistema Europako Ikerkuntza Esparruan txertatzea.

1.5.– Etorkizuneko garapenerako perspektibak.

2.– Bikaintasun zientifikoa eta ikerkuntza-jardunaren kalitatea.

2.1.– Ekintza-plana.

2.2.– Adierazleak.

2.3.– Lau urtetarako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena.

Teknologia Zentro, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentro, Enpresetako I+G Unitate eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileei buruzko III. eranskineko aldaketari dagokionez, helburua da definizioan azalpenak gehitzea, definizioa bera aldatzea eta, kasu jakin batzuetan, 2020rako pisuak eta helmugak aldatzea, honako adierazle hauen kasuan:

- g1-3 adierazlea: Honela zehaztuta geratuko da «espezializazioa»: Euskadiko ZTBP 2020n jasotako hiru lehentasun estrategiko bakoitzeko I+G gastuaren ehunekoa, I+G jarduera guztia-rekiko. Hori neurtzeko, proiektuek lehentasun estrategiko bakoitzarekin duten sektore-loturari begiratuko zaio.

- h3 adierazlea: «EPO eta PCT patenteen eskaera». Honako hau zehazten da: «Zentroak eskaera-egile gisa agertu beharko du, edo haren ikerlari batzuek asmatzaile gisa».

– EPO eta PCT patente berrien eskaerak edo patente nazionalen luzapenak I+G 100 langileko (DOB), Zentroa eskaera-egile gisa edo haren ikerlariren bat asmatzaile gisa agertzen denean.

– Softwarearen erregistro-eskaerak Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusian gaineratuta geratuko dira, betiere ekitaldian aitortutako 10.000 euro edo goragoko sarreraren bat (h4) badago eta sarrera hori aurrez kontabilizatuta ez badago.

– Patente nazionalen eskaerak kanpo geratuko dira, erreferentziazko kanpo-merkatuetara atxikita daudenak salbu, horietan, eskaera hirugarren batek egiten baitu (erreferentziazko nazioarteko ikerketa-zentro edo enpresa batek), eta zentroa asmatzaile gisa agertzen da.

Oharra: PCT = Patenteei buruzko Lankidetzeta Ituna. EPO = Europako Patenteen Bulegoa.

• h4 adierazlea: Honela geratzen da «Lizentzien eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak» definizioa: Erregistratutako jabetza intelektualaren salmenten edo lizentzien ondoriozko diru-sarrerak, I+G 100 langileko\* (DOB). Diru-sarrerak izango dira kontularitzaren ikuspegitik (cash-flow sarre-rak) zentroan gauzatzen diren diru-sarrerak. Honako hauek hartzen ditu barne:

– Patente, diseinu, erregistratutako software, sekretu industrial eta erabilgarritasun-ereduen salmentak edo lizentziak eragindako diru-sarrerak.

– Zentroak ex profeso sortutako OTEB baten jabetzan parte hartzetik eragindako diru-sarrerak, Zentroak sortutako eta erregistratutako jabetza intelektualaren ustiapenerako.

– Bezeroak erregistratu duen ezagutzaren salmentatik lortutako diru-sarrerak, horiek kontratu bidez adostu direnean eta kontratupeko I+G proiektuan kostu gisa nabarmen bereizi daitezkeenean.

• i3 adierazlea: «Euskal enpresetara transferitutako ikerlariak» definizioan, I+G Unitateetara egindako transferentzia gaineratzen da, baita euskal enpresetara ere. Horrez gain, berariaz adierazten da transferentzia kontabilizatzeko kontuan hartuko dela ikerlariak zein urtetan hartu duen alta enpresa berrian:

– Euskal enpresetara eta Enpresetako I+G Unitateetara transferitu diren ikertzaileak (DOB), zentroko 100 ikertzaileko (DOB) (b3). IKZn kasu zehatzean, TZra transferitutako ikertzaileak ere sartuko dira. Ikertzailea transferituzat joko da, baldin eta, zentroak hari baja eman, eta urtebete igaro baino lehenago alta ematen bazaio enpresan. Transferentzia kontabilizatzeko, enpresa berrian alta hartu duen urtea hartuko da kontuan. Era berean, ikertzaileen aldi baterako egonaldia zenbatuko dira, baldin eta 3 hil jarraitutik gorakoak baldin badira (DOBen arabera neurtuta) eta horiek hitzarmen bidez formalizatu badira.

• h5 adierazlea: «OTEBetan sortutako enplegu berriak» beharrear, «OTEBek eragindako fakturazioa» adierazlea ezarriko da:

– Zentroak sustatutako Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien (OTEB) fakturazioa, sozietateko partaidetza bidez eta/edo azken 5 urteetan transferitutako teknologien emaitza gisa, I+G 100 langileko (DOB)

• Foku Anitzeko Teknologia Zentroen pisua eta helmuga aldatu dira:

- pisua % 6tik % 4ra aldatu da

- eta helmuga 20tik 100era.

• Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen pisua eta helmuga aldatu dira:

- pisua % 2tik % 1era aldatu da

- eta helmuga 6tik 30era.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

- h6 adierazlea: «OTEBek eragindako fakturazioa» beharrian, «Enpresa-fakturazioan izan duen inpaktua» adierazlea ezarri da:

- Zentroak I+G 100 langile bakoitzeko (DOB) eragindako fakturazioa, enpresa bezeroek garatutako negozio-ildo, produktu eta prozesu berrietan, baldin eta zentroarekin azken 5 urteetan egindako I+G proiektuen emaitza zuzena baldin badira.

- Foku Anitzeko Teknologia Zentroen pisua eta helmuga aldatu dira:

- pisua % 6tik % 8ra aldatu da

- eta helmuga 3.500etik 5.000ra.

- Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen pisua eta helmuga aldatu dira:

- pisua % 2tik % 3ra aldatu da

- eta helmuga 700en mantendu da.

- i8 adierazlea: «Euskal enpresen presentzia duten nazioarteko proiektuen %» beharrian, «Euskal Enpresen Nazioarteko Proiektuetako Partaidetza» adierazlea ezarri da. Era berean, Enpresetako I+Gko Unitateen partaidetza gaineratu da.

- Euskal enpresek Zentroaren nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzen kopurua, I+G 100 langile bakoitzeko (DOB).

- Foku Anitzeko Teknologia Zentroen helmuga aldatu da, % 50etik % 10era.

- Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen helmuga aldatu da, % 30etik % 5era.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 24a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## **I. ERANSKIN aldatua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 DEKRETUAREN Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroei buruzkoa.**

Eranskin honen xedea Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen plan estrategikoan agertu beharreko elementuak zehaztea da; laburbilduz, hauek dira elementu horiek:

### **1.– Zentroaren deskribapen orokorra eta helburuak.**

- 1.1.– Lan-esparrua eta justifikazioa, munduko erreferentzia-zentro nagusiak. Ikuskera, misioa eta balioak. Zentroko ikerketa-jardueraren balio erantsia.
- 1.2.– Zentroaren helburu estrategikoak.
  - 1.2.1.– Ezagutza zientifikoko arloak eta horiei dagozkien ikerketa-programak.
  - 1.2.2.– Ikerketa-programa bakoitzari lotutako ikerketa-lerroak.
- 1.3.– Gobernantza (uzendaritza eta kudeaketa operatiboa ikerketaren alorrean eta zentroko kudeaketan nahiz administrazioan).
  - 1.3.1.– Zentroko zuzendari zientifikoa (profila eta funtzioak).
  - 1.3.2.– Ikerkuntza-lerro bakoitzeko ikertzaile nagusiak eta ikerkuntza-talde bakoitzeko ikertzaileak.
  - 1.3.3.– Ikerkuntza-zentroko kudeatzailea (profila eta funtzioak).
  - 1.3.4.– Talde teknikoa eta administratiboa.
  - 1.3.5.– Nazioarteko Batzorde Zientifikoa, osaera, profil laburra eta bileren aldizkakotasuna.
- 1.4.– Zentroko laguntzaileen sarea eta itun estrategikoen ezarpena: Zientziaren Euskal Sistema Europako Ikerkuntza Esparruan txertatzea.
- 1.5.– Zentroaren etorkizuneko garapenaren ikuspegia.

### **2.– Bikaintasun zientifikoa eta ikerkuntza-jardunaren kalitatea.**

- 2.1.– Ekintza-plana
  - 2.1.1.– Ikerketa-programak: Plana egin den momentuan aktibo eta ebaluazio-fasean zeuden ikerkuntza-proiektuak, argitalpen zientifikoak.
  - 2.1.2.– Ikerketa-taldeak: Ikerketa-programa bakoitzeko ikerketa-lerroen ardura duten ikerketa-taldeen sortze-politika, sendotze-politika, nazioarteko hedadura eta ebaluazioa. Zentroko ikertzaileak erakartzeko eta trukatzeko politika, batez ere Ikerbasque fundazioko ikerlarien kasuan.
  - 2.1.3.– Lotutako prestakuntza-jarduerak.
  - 2.1.4.– Beste jarduera batzuk: hedapena eta transferentzia.
- 2.2.– Adierazleak: zentroko ebaluazio-eginkizunetarako eta jarraipenerako erabiliko den adierazleen taula.
- 2.3.– Zentroak lau urtetarako duen gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena, aldi horretan ekipamenduetan eta azpiegitura zientifikoetan egin beharko diren inbertsioak barne.

## **III. ERANSKIN aldatua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 DEKRETUAREN Teknologia Zentro, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentro, Enpresetako I+G Unitate eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritzari buruzkoa.**

Eranskinaren aldaketa honek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Teknologia Zentro, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentro eta Enpresetako I+G Unitateen tipologiei dagozkien aginte-taulako adierazle jakin batzuk eta horien 2020rako pisuak eta helmugak egokitzea du helburu.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

## 1.– Aldatutako Aginte Taulak

### 1.1.– Zentro teknologikoak:

#### 1.1.1.– Foku anitzeko teknologia-zentroak

Foku Anitzeko Teknologia Zentroetako Aginte Taula aldatua.

ILDOA		ADIERAZLEA		PISUA	UNIT.	Helbuga 2020
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan		% 10	%	% 10
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan			%	% 60
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean			%	% 30
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		% 10	%	% 90
	g2	Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean			%	
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean			%	
H. Bikaintasuna	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak		% 2	Zk.	20
	h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak		% 2	Zk.	10
	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera		% 12	Zk.	3
	h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak		% 12	'000 €	400
	h5	OTEBetatik datorren fakturazioa		% 4	'000 €	100
	h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua		% 8	'000 €	5.000
I. Harremanen Eredua	i1	Finantzazio pribatuaren % EAEn		% 5	%	% 40
	i2	finantzazio pribatuaren % guztira		% 5	%	% 40
	i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak		% 5	Zk.	12
ZTBESko agenteen arteko lankidetzak	i4	Doktore-tesien baterako zuzendaritza		% 5	Zk.	8
	i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak		% 5	Zk.	8
	i6	Batera asmatutako patenteak		% 5	Zk.	1
	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %		% 5	%	% 15
	i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak		% 5	Zk.	10

2017ko apirilaren 10a, astelehena

## 1.1.2.– Teknologia Zentro Sektorialak

Teknologia Zentro Sektorialen erreferentziako aginte-taula aldatua:

ILDOA		ADIERAZLEA		UNIT.
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan		%
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan		%
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean		%
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%
	g2	Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%
H. Bikaintasuna	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak		Zk.
	h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak		Zk.
	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera		Zk.
	h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak		'000 €
	h5	OTEBetatik datorren fakturazioa		'000 €
	h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua		'000 €
I. Harremanen Eredua	i1	Finantzazio pribatuaren % EAEan		%
	i2	finantzazio pribatuaren % guztira		%
	i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak		Zk.
ZTBESko agenteen arteko lankidetzak	i4	Doktore-tesien baterako zuzendaritza		Zk.
	i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak		Zk.
	i6	Batera asmatutako patenteak		Zk.
Nazioarteko lankidetzak	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %		%
	i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak		Zk.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

**1.2.– Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).**

Ikerketa Kooperatiboko Zentroetako (IKZ) aginte-taula aldatua:

ILDOA		ADIERAZLEA		PISUA	UNIT.	Helbura 2020
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan		% 10	%	% 60
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan			%	% 30
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean			%	% 10
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		% 10	%	% 100
	g2	Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean			%	
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean			%	
H. Bikaintasuna	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak		% 12	Zk.	65
	h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak		% 12	Zk.	60
	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera		% 6	Zk.	2
	h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak		% 6	'000 €	200
	h5	OTE Betatik datorren fakturazioa		% 1	'000 €	30
	h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua		%3	'000 €	700
I. Harremanen Eredua	i1	Finantzazio pribatuaren % EAEn		% 5	%	% 20
	i2	Finantzazio pribatuaren % guztira		% 5	%	% 30
	i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak		% 5	Zk.	7
	i4	Doktore-tesien baterako zuzendaritza		% 5	Zk.	15
	i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak		% 5	Zk.	35
	i6	Batera asmatutako patenteak		% 5	Zk.	1
	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %		% 5	%	% 15
	i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak		% 5	Zk.	5



2017ko apirilaren 10a, astelehena

**1.3.- Enpresetako I+G Unitateak**

Enpresetako I+G Unitateen erreferentziako aginte-eta aldaturak:

ILDOA		ADIERAZLEA	UNIT.
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan	%
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan	%
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean	%
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuaren I+G-kosten % I+G-kosten jarduera osoaren gainean	%
	g2	Energiaren I+G-kosten % I+G-kosten jarduera osoaren gainean	%
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-kosten % I+G-kosten jarduera osoaren gainean	%
H. Bikaintasuna	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak	Zk.
	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera	Zk.
	h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak	'000 €
	h5	OTEBetatik datorren fakturazioa	'000 €
	h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua	'000 €
	i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak	Zk.
I. Harremanen Eredua	i4	Doktorre-tesien baterako zuzendaritza	Zk.
	i6	Batera asmatutako patenteak	Zk.
	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %	%
	i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak	Zk.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

## 2.- Adierazleen deskribapena.

Zentro teknologikoak, CIC eta Enpresetako I+Gko Unitateak  
Adierazleen definizio aldatuak

	ADIERAZLEA	UNIT.	KALKULUA	DEFINIZIOA
f1-3	I+G arloko jardueraren mixa	%	f1+f2+f3=% 100	I+Gko gastuaren ehuneko 3 ikerketa-motara zuzendua: oinarritziko ikerketa, ikerketa industriala eta garapen esperimentalak.
g1-3	I+G gastuaren % eremu zientifiko-teknologiko estrategiko bakoitzean	%	g1+g2+g3 ≤100	I+G gastuaren ehuneko 3 ikerketa-motara zuzendua: oinarritziko ikerketa, ikerketa industriala eta garapen esperimentalak.
h1	Indexatutako argitalpen zientifikoak (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	j1/(b1/100)	I+G gastuaren ehuneko 3 ikerketa-motara zuzendua: oinarritziko ikerketa, ikerketa industriala eta garapen esperimentalak. Neurketa egiteko, proiektuek helburu estrategiko bakoitzarekin duten lotura sektoriala hartuko da kontuan
h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	j2/(b1/100)	Indexatutako argitalpen zientifikoak, zentroko edo zentroari atxikituak I+G langileek egindakoak, I+Gko 100 langileko* (DOB). Hor sartzen dira argitaratutako artikuluak (articles) eta kongresuetako aktak (proceedings).
h3	EPO eta PCT patenteen eskaera (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	j3/(b1/100)	Indexatutako argitalpen zientifikoak zentroko edo zentroari atxikituak I+G langileek lehen kuartilean (Q1) argitaratutakoak, I+Gko 100 langileko* (DOB). PCT/EPO patente berrien edo patente nazionalen hedapenen eskaerak I+Gko 100 langileko* (DOB) Zentro eskaera-egile gisa agertzen denean edo haren ikerlariren bat asmatzaile gisa agertzen denean Haren barne sartuko dira Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusian softwarea erregistratzeko eskaerak, betiere ekitaldian aitortutako 10.000 € edo goragoko diru-sarreraren bat (h4) badago eta aurrez kontabilitatuta ez badago. Patente nazionalen eskaerak kanpo geratuko dira, erreferentziako kanpo-merkatuekin lotuta daudenak salbu, horietan, eskaera hirugarren batek egiten baitu (erreferentziako nazioarteko ikerketa-zentroak edo enpresak), eta zentroa asmatzaile gisa agertzen da. <i>Oharra: PCT = Patenteei buruzko Lankidetzaren Ituna. EPO = Europako Patenteen Bulegoa.</i>
h4	Lizentzia eta patenteen diru-sarrerak (I+Gko 100 langileko [DOB])	000 €	j4/(b1/100)	Erregistratutako jabetza intelektualearen salmenten edo lizentzien ondoriozko diru-sarrerak, I+G 100 langileko* (DOB). Diru-sarrerak izango dira kontularitzaren ikuspegitik (cash-flow sarrerak) zentroan gauzatzen diren diru-sarrerak. Honako hauek hartzen ditu barnean: - Patente, diseinu, erregistratutako software, sekretu industrial eta erabigarritasun-ereduen salmentak edo lizentziak eragindako diru-sarrerak - Zentroak ex profeso sortutako OTEB baten jabetzan parte hartzeak eragindako diru-sarrerak, Zentroak sortutako eta erregistratutako jabetza intelektualearen ustiapenerako. - Bezeroak Zentroko ikerlari batekin asmatzaile gisa egin duen patente batek eragindako ezagutzaren salmentatik lortutako diru-sarrerak, horiek kontratu bidez adostu direnean eta kontratupeko I+G proiektuan kostu gisa nabarmen berezi daitezkeenean
h5	OTEBetatik eratorritako fakturazioa (I+Gko 100 langileko [DOB])	000 €	j5/(b1/100)	Zentroak sustatutako Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien (OTEB) fakturazioa, sozietateko partaidetzaren bitartez eta/edo azken 5 urteetan egindako teknologia-transferentziaren eraginez, I+G 100 langileko* (DOB)
h6	Enpresaren fakturazioak duen inpaktua (I+Gko 100 langileko [DOB])	000 €	j6/(b1/100)	Zentroko I+Gko 100 langileko (DOB) sortutako fakturazioa, enpresa bezeroek garatutako negozio-lerro, produktu eta prozesu berrietan eta horiek azken 5 urteetan Zentroarekin egindako I+Gko proiektuen emaitza zuzena direnean
i1	Finantzazio pribatuaren % EAEan	%	c11 c2rekiko	EAEko enpresen *** eta erakundeen finantzazio pribatua (ZTBESeko eragile badira), I+Gko ustiapeneko diru-sarrera guztiekin (c2)
i2	Finantzazio pribatuaren guztizko % (I+G arloko jardueraren osoaren gaineko %a)	%	c9 c2rekiko	Enpresen eta beste eragile pribatu batzuen (ZTBES eta abarren) aldetik jasotako finantzazio pribatua, tokikoa, nazionala nahiz nazioartekoa, I+Gko ustiapeneko diru-sarrera guztiekin (c2)
i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak (100 ikertzaileko [DOB])	Zk.	k1/(b3/100)	Euskal enpresetara *** eta Enpresetako I+G Unitateetara transferitu diren ikertzaileak, Zentroko 100 ikertzaileko (DOB) (b3). IKzn kasu zehatzean, Tzra transferitutako ikertzaileak ere sartuko dira. Ikerketaileak transferitutak joko da, baldin eta, zentroak hari baja eman, eta urtebete igaro baino lehenago alta ematen bazaio enpresan. Transferentzia kontabilitatzeko, enpresa berria alta hartu duen urtea hartuko da kontuan. Era berean, ikertzaileen aldi baterako egonaldiak zenbatuko dira, baldin eta 3 hil jarraitutik gorakoak baldin badira (DOBen arabera neurtuta) eta akordio bidez hitzartu badira.
i4	Doktorego-tesien baterako zuzendaritza (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	k2/(b1/100)	Egite-prozesuan dauden doktore-tesiak, zentrotik haien baterako zuzenketa egiten baldin bada ZTBESeko beste eragileren batekin, I+Gko 100 langileko* (DOB) (b1). Zentroko bertako langile propioak egindako tesiak izan daitezke, edo ZTBESeko beste ikertzaile batzuek egindakoak.
i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	k3/(b1/100)	Indexatutako argitalpen zientifikoak, ZTBESeko beste eragile batzuekin lankidetzan egindakoak, I+Gko 100 langileko* (DOB) (b1). Baztertu egiten dira atxikituak ikertzaileei lotutako erakundeekin (esaterako: ikerbasque) egindako argitalpenak.
i6	Batera asmatutako patenteak (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	k4/(b1/100)	Azken hiru urteetan, ZTBESeko beste eragile batzuekin batera eskatutako edo asmatutako patenteak (PCT eta EPO), I+Gko 100 langileko (DOB); horiek eskatzaile edo asmatzaile gisa agertu ahal izango dira bertan.
i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %	%	c9 c2rekiko	Nazioarteko finantzazio publikoaren ehunekoak I+Gko ustiapeneko diru-sarrera guztiekin (c2).
i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak (I+Gko 100 langileko [DOB])	Zk.	k5/(b1/100)	Euskal enpresek *** eta I+G Unitateek Zentroaren nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzaren kopurua, I+G 100 langile bakoitzean.

(\*) «Enplegatu» hitzaren definizioak DOBen arabera neuritutako I+Gko langile kopurua adierazten du (b1)

(\*\*) "Ikerketaile" hitzak DOB izerako Ikerketaileak adierazten ditu (b3)

(\*\*\*) «Euskal enpresa» da irabazi-osnoak dituen jardueraren ekonomiko bat gauzatzen duen eta EAEan lan-toki bat duen erakunde juridiko oro; hura izango da, hain zuzen ere, adierazitako I+G jardueraren subjektua/hartzailea

2017ko apirilaren 10a, astelehena

Aginte-taulako adierazleen taula osagarri aldatua

ADIERAZLEA		UNIT.		Loturiko adierazlea	
j1	Indexatutako argitalpen zientifikoaren kopuru osoa	Zk.	h1	Indexatutako argitalpen zientifikoak (+Gko 100 langileko [DOB])	
j2	Lehenengo kuartileko argitalpenak, guztira	Zk.	h2	Lehen kuartileko argitalpen zientifikoak (Q1) (+Gko 100 langileko [DOB])	
j3	EPO eta PCT patenteen eskaera-kopuru guztikoa	Zk.	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera (+Gko 100 langileko [DOB])	
j4	Lizentzia eta patenteetatik eratorritako diru-sarrerak, guztira	`000 €	h4	Lizentzia eta patenteen diru-sarrerak (+Gko 100 langileko [DOB])	
j5	OTEBetatik datorren fakturazioaren zenbatekoa, guztira	`000 €	h5	OTEBetatik datorren fakturazioa (+Gko 100 langileko [DOB])	
j6	Enpresa bezeroek eragindako fakturazioaren zenbatekoa, guztira	`000 €	h6	Enpresaren fakturazioan izan duen inpaktua (+Gko 100 langileko [DOB])	
k1	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileen kopuru osoa	Zk.	i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak (100 ikertzaileko, DOB)	
k2	Batera zuzendutako doktore-tesien kopuru osoa	Zk.	i4	Doktorego-tesien baterako zuzendaritza (+Gko 100 langileko [DOB])	
k3	Lankidetzan indexatutako argitalpen zientifikoaren kopuru osoa	Zk.	i5	Argitalpen zientifikoaren baterako autoretza (+Gko 100 langileko [DOB])	
k4	Lankidetzan egindako EPO eta PCT patenteen kopuru guztikoa	Zk.	i6	Batera asmatutako patenteak (+Gko 100 langileko [DOB])	
k5	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidatzen kopurua	Zk.	i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidatzen kopurua (+G 100 langile bakoitzeko [DOB])	